

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Ekonomia jardueren gaineko zerga kobratzea, 2020**

2020ko jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko Okondoko matrikula jendaurrean jarri ondoren erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, onetsi egin du foru aldundiak.

Ordaintzeko bi hilabete izango dira; hau da, 2020ko azaroaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, berez eta besterik gabe betearazteko aldia hasiko da. Horrek berarekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien erreklarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorren 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baita premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergadunek ez dute inolako izapiderik egin behar, eta bankuak 2020ko abenduaren 9an egingo du zordunketa.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2020ko urriaren 16a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO*